

24 GUNEA. GALEAKO MAREA-RASA. PUNTO 24. RASA DE LA GALEA

BALORAZIOA


Interesa: Didaktikoa.

Kategoria: Eskualde mailakoa.

Kontserbazioa: Ona.

Antzeko beste gune batzuk: Bermeoko rasa eta Gizaburuaga (Elantxobe eta Lekeitio bitartean).

Irispidea: Algortatik Galeako farora doan errepidez.



VALORACION

Interés: Didáctico.

Categoría: Regional.

Conservación: Buena.

Otros puntos semejantes: Rasa de Bermeo y Guizaburuaga (entre Elantxobe y Lekeitio).

Accesos: Por la carretera que desde Algorta se dirige hacia el faro de La Galea.




Urgaineraturiko marea-zapaldak, lautada leun eta erliebe gabeko baten antza du eta kostako labarretatik barnealdera hedatzen da, maila topografiko guztiz uniforme mantenduz. Fasa hau Paleozenoko flysch-materialetan dago tailatuta gehienbat; material hauek marga, kararri eta hareharrizko geruza txandakatu daude osatuta. Geruzen inklinazioa oso handia, ia-bertikala, izanik. Rasaren sorrera badirudi interglaziarrean gertatu zela Riss glaziazioaren (-100.000 urte) eta Würm (-50.000 urte) glaziazioaren tartean; garai hartan gure lurraldearen parte handi bat urez estalita geratu bait zen. Itsas mailaren azken beherakadak bistan utzi du egitura hau, behatzeko moduan.

Urgaineratutako marea-rasak itsas mailak izandako aldaketen lekuko dira, bereziki kostalderoak izandako erregresioaren lekuko. Gaurko itsas labarren batzuek altuera 20 m-tik gorakoa dela jakinik, pentsa dezakegu garai bateko itsas maila gaurkotik 40-50 m gorago egongo zela. Kostako itsas hondoretako materialak olatuen eta mareen erosio-ekintzak eraldatu egiten ditu eta horrela sortzen dira marea-rasa deituriko arrasamendu-zelaiak. Gaurko labarren oinean gaur eguneko marearteko rasa hasten da, itsasbeheran guztiz nabaria; haren hedadura aldatu egiten da kostaldeko puntu batzuetatik besteera.

*Bizkaiko itsasaldean barrena, badaude adibide gehiago itsas hausia-
ren lerroak izan dituen transgresio eta erregresioen berri ematen dutenak. BARRIKAKO eta BERMEOKO rasak dira behatzeko errazena. Laugarren arrasamendu-zelaia Gizaburuagan dago Elantxobe eta Lekeitioaren tartean.*

**URGAINERATUTAKO
MAREA-RASA BATEN
ERAKUNTZA**

1. Hondartza-kostaldea.
2. Labarraren erakuntza.
3. Labarraren atzerakada eta marea-rasaren sorrera.
4. Itsas mailaren jaitsiera eta rasaren urgaineratzea.



**FORMACION DE UNA RASA
MAREAL EMERGIDA**

1. Costa de playas.
2. Formación del acantilado.
3. Retroceso acantilado y formación de la rasa mareal.
4. Descenso del nivel del mar y emersión de la rasa.

La plataforma mareal emergida se observa como una suave planicie carente de relieves que se extiende a partir de los acantilados costeros, en dirección al interior, manteniendo un nivel topográfico muy uniforme. Esta rasa está tallada sobre los materiales flysch del Paleoceno, en su mayor parte formados por capas alternantes de margas, calizas y areniscas que aparecen con gran inclinación o incluso verticales. La formación de la rasa parece remontarse al período interglaciar, entre las glaciaciones del Riss (-100.000 años) y el Würm (-50.000 años); un período durante el cual gran parte de nuestro territorio quedó cubierto por el mar. El último descenso del nivel marino ha puesto al descubierto esta estructura, permitiendo su observación.

Las rasas mareales emergidas son testigo de cambios del nivel marino, propiamente de la regresión de una línea de costa. Dado que la altura media de los acantilados costeros es más de 20 m, podemos suponer un nivel marino situado a 40 o 50 m por encima del nivel actual o incluso más. La acción erosiva del oleaje y las mareas, al actuar sobre los materiales del fondo marino cercano a la costa, forman estas planicies de arrasamiento, conocidas como rasas mareales. Al pie de los acantilados actuales, se inicia la rasa intermareal actual, perfectamente visible durante los períodos de bajamar.

A lo largo de la costa de Bizkaia, aparecen más evidencias de este proceso de transgresión y regresión. Pueden considerarse la rasa de BARRIKA y la de BERMEO como las más fácilmente observables. Aparece una cuarta superficie de arrasamiento en Guizaburuaga, entre Elantxobe y Lekeitio.